

## Fosilez elikatzen diren belakiak aurkitu dituzte

Ozeano Artiko Zentralean, ura izotsez estalita dago beti, eta, ondorioz, elikagaietan urriena den ozeanoa da. Belaki-populazio erraldoiak hazten dira, ordea, 24 kg eta 1 m-ko belakiak ere badituztenak. Max Planck Institutuko ikertzaileek haien fisiologia aztertu, eta ikusi dute jada desagertuta dauden animalien arrastoez elikatzen direla. Alegia, fosilez.

Bakterio batzuen laguntzaz digeritzen dituzte arrasto fosilak, haien entzimak gai baitira haien digeritzeko. Hala, uretan disolbatutako arrasto fosilak xurgatzen dituzte belaki erraldoiek, eta, estrategia horren bidez, 300 urtetik gora bizi dira.



Animalia fosilen arrastoez elikatzen dira belakiak, eta, hala, beste organismoak bizitzeko habitat bereziak sortzen dituzte bestela guztiz oligotropikoak diren ozeanoetan.


ARG.: Alfred-Wegener-Institut / PS101 AWI OFOS system/  
Antje Boetius.

Jatorri bolkanikoa duten mendiak estaltzen dituzte orain belakiek, eta ekosistemaren ingeniarri modura jokatzen dute, koral-arrezifeen modura: habitat bereziak sortzen dituzte bertako beste organismoak finkatzeko eta ezkutatzeko. Ondorioz, Artiko koko biodibertsitatearen zaintzaile dira. Artikoan bakarrik dauden bizi-estrategia eta ekosistemak direla adierazi dute ikertzaileek, eta horiek babes-tearen garrantzia [azpimarratu dute Nature Communications aldizkarian](#). ●

## Errekor berria fusio bidezko energiareng sorreran

ITERen plasma bidezko probak 2025ean hasiko badira ere, dagoeneko martxan dira beste fusio-erreaktore esperimental batzuk. Hain zuen horietako batek, Oxforden (Ingalaterra) dagoen JET erreaktoreak, fusio nuklearrazen inoiz lortutako energia-ekoizpenik handiena eskuratu du: 59 mega-joule sortu ditu, aurreko 21,7 megajouleen markaren aldean, eta, gainera, 5 segundoz mantendu ahal izan du ekoizpen-tasa. Ekoizpena denboran mantentzea da teknologia honen erronkarik handiene-tako bat.

Gainera, horretarako, deuterio- eta tritio-nukleoak dituen plasma ionizatua erabili du JETek erregai modura, ITERek erabiliko duen plasma bera. Ikertzaileek adierazi dute fusio nuklearren erren>tagarritasun energetikoaren norabidean urrats garrantzitsua izan dela, zalantza gabe. [Nature aldizkarian argitaratu dute](#). ●



ARG.: Eurofusion.